



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“**Bigarrena.**- Bilkura presentzialak nola egin.

1. 1. Presentzial gisa egiteko deitzen diren Osoko Bilkuraren eta batzordeen bilkurak Osoko Bilkuren aretoan eginen dira, eta egunean bilkura bat eginen da, beharrezkoa denean Gobernu kidez edo foru parlamentari parte-hartzailez aldatzea. Parlamentuko Mahaia eta batzordeetako mahaiak Parlamentuko beste areto batzuetan biltzen ahalko dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorderik.

2. Osoko Bilkuraren saio presentzialak eginen dira parlamentariiek, Gobernu kideek eta haien laguntzarako legelariak multzo murriztua osaturik. Ezein kasutan ez da gaindituko Osoko Bilkuren aretoak pertsonen arteko gutxieneko distantzia —bi metrokoa— bermatuz eskaintzen duen gehieneko edukiera, zeina hogeita bat eserlekukoa baita.

3. Osoko Bilkuretara bertaratuko dira Nafarroako Gobernu lehendakaria eta gehienez bost kontseilari, Mahaiko bost kideak —haietatik, Bigarren Lehendakariordea eta Bigarren Idazkaria hedabideentzako eserlekuetan kokatuko dira, beharrezkoa bada—, legelari nagusia edo haren ordezkariak, bai eta talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak izendatutako kideak ere. Azken horiek honela banatuko dira, beren garrantzi numerikoari begiratuta:

Navarra Suma talde parlamentarioa: 3

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa: 2

Geroa Bai talde parlamentarioa: 2

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa: 2

Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkartea: 1

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa: 1

Bilkura horietan, bozketa aurretiazko boto-eskuordetze bidez egiten ahalko da, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, COVID-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzutekoa; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

5. Batzordeen bilkuretara kide guztiak bertaratuko dira, bai eta haiei lagunduko dien legelaria eta agerraldia egiten duen kontseilaria ere; azken horri, gehienez, lau pertsonak lagunduko diote.

“Laugarrena.- Administrazio-epeen etetea bertan behera uztea.

Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikularekin bat etorriz (errege dekretu horrek luzatu egiten du 2020ko COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuako alarma-egoera), 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin bertan behera uzten da administrazio-epeen etetea, eta haiek berrabiatzen dira edo berriz hasten dira, baldin eta alarma-egoera eta horren luzapenak indarrean dauden bitartean onetsitako lege-mailako arau batean hala aurreikusitakoa bada”.

“Bosgarrena.- Etendako jarduerak.

1. Etendurari eusten zaio batzordeen lan-bilkuretan, ponentzietan eta Parlamentuaren egoitzarako bisita gidatuetan, eskola-ikasleen osoko bilkura eta antzekoetan, bai eta Parlamentuaren barrenean egitekoak diren ekitaldi publiko, hitzaldi, erakusketa eta abarretan.

2. Etendurari eusten zaio Parlamentuko langile eta kideek egoitzatik kanpo egin beharrekoak diren jardueretan, hala nola bidaia ofizialak, bisitak, prestakuntza-ikastaro presentzialak, mintegiak, kanpo-enpresekiko bilerak eta abar.

3. Sarbide-murriztapenari eusten zaio, publiko gonbidatua osoko bilkuretara etortzeari dagokionez”.

“Seigarrena.- Eraikinerako sarbidea mugatzea.

1. Parlamentuaren egoitzara sartzeko baimenduta dauden bakarrak honako hauek dira: foru parlamentariak eta talde parlamentarioen zein parlamentari-elkarteen, Lehendakariaren Kabineteko eta Mahaiaren langileak, Parlamentuko langileak, jarduera parlamentarioak beharrezkoak diren ikus-entzunezko zerbitzuetako teknikariak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarraren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enpresetakoak, bai eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina egingen da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzekoak diren osasun-arauak betirik betiere, eta egonaldia betiere egingen da haien segurtasunerako bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Nafarroako Parlamentuko garajera sartzen ahalko dira baimenduta dauden pertsonak eta ibilgailuak soilik, Nafarroako Parlamentuko garajea erabiltzeko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko Erabakian ezarritakoari jarraituz.

Hedabideak baimenduta egonen dira sartzeko, hurrengo epigrafean ezarritako baldintzetan.

Lehendakariaren, Mahaiaren, talde parlamentarioen eta parlamentarien elkarteen bulegoetara bisitak egitea baimenduko da, betiere betirik aplikatzekoak diren osasun-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren gomendioak. Betiere, areto bakoitzaren gehieneko edukiera errespetatu beharko da, pertsonen arteko 2 metroko distantzia ziurtatu ahal izateko. Gehieneko edukierak areto horien sarreran adieraziko dira.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

Parlamentuko kafetegira osoko bilkurak egin eta tabernak arreta eskaintzen duen egunetan sartzen ahalko da. Zerbitzua emateko, Ganberako langileek emandako jarraibideak bete beharko dira, eta une oro errespetatu beharko dira Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen neurriak".

“Zazpigarrena.- Hedabideak:

1. Prentsaurrekoak presentzialki edo bideokonferentzia bidez eginen dira. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, behar den aurrendenboraz zehaztuko du nola eginen diren.

2. Bideokonferentziazko prentsaurrekoak osoko bilkuren aretotik egin eta streaming bidez eskainiko dira Parlamentuaren web-orriaren bitartez, eta hedabideek modua izanen dute Prentsa Zerbitzuaren bitartez edo, ahal denean, bideokonferentzia bidez, galderak egiteko.

3. Hedabideak fisikoki bertaratuta eginiko prentsaurrekoak astelehen eta ostegunetan eginen dira, Legebiltzarreko atalandoan. Beharrezkoak izanen dira alde aurreko kreditazioa eta bertaratze-konfirmazioa, gunean segurtasun-neurriak betetzeko egokitzapenak egin eta betiere bermatze aldera pertsonen artean bi metroko gutxieneko distantzia dagoela. Horretarako, ekitaldirako zenbat pertsona kreditatu diren, hainbeste besaulki paratuko dira hizlariaren mintzatokiaren aurrean, distantzia horren arabera.

Halaber, mahai bat prestatuko da, non korrespontsalek gel hidroalkoholikoa izanen duten beren grabazio-tresnak eta eskuak desinfektatzeko, prentsaurrekoa amaitu aurretik eta ondoren.

Agerraldira bertaratzen diren hedabideek Nafarroako Parlamentuari bermatu beharko diote kreditatzen duten langileak ez daudela COVID-19ak kutsatuta, eta kutsatuta egonez gero uko eginen diote kasuko langilea ekitaldira bidaltzeari, eta haren orde besta korrespontsal bat bidaliko dute. Bestalde, osasun-agintaritzaren gomendioak eta, hala badagokio, Ganberako zerbitzuek egiten dituztenak bete beharko dituzte.

4. Prentsako, irratiko, telebistako eta behar bezala kreditaturiko gainerako komunikabideetako kazetari baimena ematen zaie Nafarroako Parlamentuak deitutako prentsaurrekoetan eta bilkura presentzialetan egoteko. Osoko bilkuretan edo batzordeen bilkuretan, kazetariak hemizikloko prentsa-kabinetan jarri beharko dira, eta Ganberako langileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, beren artean gutxienez bi metroko tarteari eutsiz. Erreportari grafiko kasuan, hemiziklora banaka sartzen ahalko dira, bata bestearen atzetik. Aretora sartutakoan, gomendatutako gutxieneko distantzia errespetatu beharko dute, eta beren lana egiteko ezinbestean gutxienekoa den denbora eman ahalko dute bertan”.

“Zortzigarrena.- Babes-neurri orokorrak.

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak proposatuta eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeari entzun ondoren Mahaiak erabakitzen dituen

babes-neurri orokorrak aplikatuko dira COVID-19arekin kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

2. Bereziki, antolamendu-neurriak ezarriko dira, hala nola telelana, lanaldiaren ordutegi-malgutasuna eta langileen errotazioa, plan honetan xedatuari jarraikiz.

3. Neurri horiek guztiak posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaizkie Legebiltzarreko langile guztiei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta langileen iragarki oholean argitaratuko dira.

4. Foru parlamentariak eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen laguntzaileak eta Lehendakariaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak erakundera sartzen ahalko dira eta bertan gelditu, baimena eskatzeko beharrik gabe, lanegun guztietan; baina gomendatzen da ahalik eta laburrena izatea egonaldia. Betiere, talde parlamentarioen bulegoetan bermatu egin beharko dira segurtasun neurriak eta bi metroko gutxieneko distantzia egotea pertsonen artean; bestela, maskara erabili beharko da. Talde parlamentarioen barne-bileretarako, batzorde-gelak edo eskuragarri dauden beste areto batzuk erabiltzen ahalko dira, eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak gomendatutako segurtasun-neurriak beteko dira.

Alde horretatik, lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa errespetatu beharko dute aplikatzekoa zaien orotan, bai eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeak gomendatutako segurtasun neurri guztiak ere. Era berean, talde parlamentarioei eta foru parlamentarien elkarteari gomendatzen zaie beren eginkizunak ahal den neurrian telelanean bete ditzaten”.

“Bederatzigarrena.- Langileak lan presentzialera pixkanaka itzultzeko neurriak.

1. Langile guztiak ekainaren 8an, astelehenez, itzuliko dira lan presentzialera, errespetatuz une bakoitzean aplikatu beharrekoak diren prebentzio-neurriak, lan-ordutegiak eta osasun-agintaritzak kutsadurak saiheste aldera ezarritako pertsonen arteko aldente-distantzien araberako espazioak; halaber, hori dela-eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak lanpostuen arriskuak ebaluatzeko prestatutako fitxetan ezarritako gainerako prebentzio-neurri zuzentzaileak beteko dira.

2. Halere, COVID-19agatiko kutsadura-arriskuaren ondoriozko egoerak dirauen bitartean, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute beren eginkizunak ordutegi-malgutasunez betetzea, telelanean nahiz presentzialki, Plan honek xedatzen duenari jarraituz.

Telelana posible izan ez eta jarduera parlamentarioak ez duenean beharrezko egiten langilea fisikoki Legebiltzarren egoitzara bertaratzea, eta langilearen inguruabar pertsonalek hori justifikatzen dutenean, zilegi izanen da langilea bere etxean gera dadin baimentzea, hori ezinbesteko eginbehar gisa joz, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamenduko 28. artikuluan xedatuari jarraikiz, plan honetan ezarritako moduan.

3. Ekainaren 2an eta 3an, Zerbitzu Orokorretako Burutzari igorriko zaizkio telelanerako, ordutegi-malgutasunerako, lan-txanden egokitzapenerako edo ezinbesteko eginbeharragatiko baimenerako eskaera guztiak, plan honetan nahiz Nafarroako Parlamentuko langileen lanaldia telelan-araubidean egitea arautzen duten arauetan aurreikusitako arrazoiengatikoak. Eskaeraren zergatia zein den adierazi beharko da. Aztertu eta aintzat hartu ondoren, Idazkaritza Nagusiak erabaki

bat hartuko du, atxikipen-zerbitzuko buruak txostena egin ondoren, eta ekainaren 5ean jakinaraziko zaio eskatzaileari.

4. Legebiltzarreko langileak behartuta egonen dira betetzera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsitako Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloan jasotako neurriak”.

“Hamaikagarrena.- Ordutegi-malgutasuna, lan-txanden egokitzapena eta ezinbesteko eginbeharragatiko baimena.

1. Ezertan galarazi gabe lanaldi-araubide arruntaren betetzea, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute, Orik 14 urtera bitarteko adineko seme-alabak edo menpeko edadetuak zaintzeko, bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egiteko beharrezkoa den ordutegi-malgutasuna erabiltzea, bai eta lan-txanden egokitzapena lortzea ere, lanpostuak horretarako modua emanaz gero, aurretiaz Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda eta haren baimena lortuta, atxikipen-zerbitzuko buruak txostena egin ondoren.

2. Aipaturiko kasuetan, langileek aukeratzen ahalko dute beren lanaldia 07:30etik 20:30erako denbora-tartearen barrenean egitea, astelehenetik ostiralera.

3. Telelana posible ez den kasuetan, eta langile publikoaren inguruabar pertsonalak kontuan hartuta, dela langile kalteberak direlako, dela 0 eta 14 urte bitarteko seme-alabak edo mendeko edadetuak zaintzeko, zilegi izanen da baimentzea kasuko langilea bere etxean gera dadin, hori ezinbesteko eginbehar gisa joz, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamenduko 28. artikuluan xedatuari jarraikiz; horretarako, aurretik, eskaera bat aurkeztu beharko zaio Idazkaritza Nagusiari eta horrek baimena eman beharko du, atxikipen-zerbitzuko buruak txostena egin ondoren. Aukera hori normaltasun berriaren fasea hasi arte mantenduko da, eta 0 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzearen kasuan, 2020ko ekainaren 19an iraungiko da, betiere”.

“Hamabigarrena.- COVID-19arekiko kalteberak diren langileei aplikatzekoak zaizkien babes-neurriak.

1. Honako hauek pairatzen dituztenek osatzen dituzte COVID-19arekiko talde kalteberak: diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra –hipertentsioa barne–, arnas gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, edo tratamendu aktiboko faseko minbizia. Halaber, haurdunek eta 60 urte baino gehiagoko adinekoek.

2. Pertsona bat COVID-19arekiko bereziki kalteberatzat sailkatzeko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko osasun-langileek pertsona hori ebaluatu eta egoki diren prebentzio-, egokitzapen- eta babes-neurriei buruzko txostena egin beharko dute. Horretarako, aintzat hartuko dute langilearen osasun-egoeraren berezko arriskua areagotu gabe lan egitea ahalbidetzen duen baldintzarik badagoen ala ez dagoen.

3. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, COVID-19arekiko kaltebera direnen taldeetakoak diren langileek, edo COVID-19arekiko kaltebera diren ahaideekin bizi direnek, zilegi izanen dute, salbuespen gisa, beren lanaldia telelanean beren etxetik betetzea, lanpostuak horretarako modua emanaz gero. Telelana posible ez denetan, langilea bere etxean egotea ezinbesteko eginbehartzat joko da, hamaikagarren apartatuan ezarritako baldintzetan. Nolanahi ere, baimena beharko du, plan honen bederatzigarren apartatuak xedatzen duenaren arabera”.

“Hamaseigarrena.- Parlamentuaren Liburutegiko eta Artxiboko sarrera- eta kontsulta-araubidea.

1. Liburutegiaren eta Artxiboaren funtsetarako sartzea eta haien kontsultatzea ordutegi murriztuan eginen dira, 09:00etatik 14:00etarako denbora-tartean, komeni denaren arabera ezarritako denboraz eta zerbitzuaren instalazioetan bertako funtzionario bat beti egonda, ahalbideen arabera eta Parlamentuko lan presentzialari buruz ematen diren arauetara jarraituz.

2. Bertan behera uzten da erabiltzaileek Liburutegiaren gordailura zuzeneko sarbidea izatea.

3. Bertan behera uzten da Liburutegiaren funtsak mailegatzeko zerbitzua.

4. Paper-formatukoak diren Liburutegiaren liburu eta aldizkako argitalpenen kontsulta arrunta Zerbitzuak erabiltzaileari helarazitako erreprodukzio digitalen bidez eginen da, hark eskatuta. Zerbitzuak formatu digitalean eskainiko du obraren aurkibidea, eta erabiltzaileak erabakiko du zer orrialde erreproduzitu behar diren. Orrialde horiek ezin izanen dituzte gainditu egile-eskubideak une oro babesteko beharrezkoak diren erreprodukzio-mugak. Obra baten kontsulta ahalbidetu ondoren, biharamunera arte ezin izanen da aurkeztu obra berari buruzko beste eskaerarik.

5. Bertan behera uzten da Legebiltzarraren organoei eta parlamentu-administrazioaren zerbitzuei Artxiboko paper-formatuko dokumentazioa fisikoki mailegatzeko zerbitzua.

6. Artxiboko dokumentazio paper-formatukoaren kontsulta arrunta Zerbitzuak erabiltzaileari helarazitako erreprodukzio digitalen bidez eginen da, hark eskatuta. Eskaturiko espediente edo dokumentazioa 20 orrialde baino gehiagokoa izanez gero, Zerbitzuak horren aurkibide bat igorriko dio erabiltzaileari, hark seinala dezan zer zati erreproduzitu beharko diren digitalki.

7. Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsak irakurgelan presentzialki kontsultatzea salbuespenezkoa izanen da, Legebiltzarreko organo eta zerbitzuen ezinbesteko funtzionamendu-premiekin beharturik, eta zerbitzuburuak espresuki baimendu beharko du.

Irakurgelan libururen baten kontsulta presentziala egiteko baimena lortzen duten erabiltzaileek maskara erabili beharko dute beti, eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu beharko dituzte, aurretik eta ondoren ere. Bai maskaraz bai gel hidroalkoholikoaz zerbitzuko langileek hornituko dituzte erabiltzaileak.

Kontsulta presentzialaren ondoren, manipulaturako liburuak hirurogeita hamabi orduz erretiratuko dira, eta kartoizko gutun-azal edo kaxa itxi batean utziko dira, desinfektatzeko.

8. Bertan behera uzten da erakundeaz kanpoko erabiltzaileen kontsulta presentziala.

9. Une bakoitzean zehazten den zerbitzuko funtzionarioek beste inork ezin izanen du egin Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsen erreprodukzio digitala. Artxibo eta Liburutegirako sarbidea dagoen egun bakoitzean, zerbitzuburuak zehaztuko du zer pertsonak duen erreprodukzio digitalak egiteko ardura, eta zirkunstantzialki suertatzen bada pertsona hori tarte horretan ordeztu beharra, ordezen hori espresuki baimendu beharko du, eta zerbitzuko beste funtzionario batek beste inork ezin izanen du ordezipena egin.

Erreprodukzio digitalak egiterakoan, horiek egiteko arduradunak garbituta eduki beharko ditu eskuak eta eskuztaturik suertatzen diren inprimagailu funtzioaniztunaren atalak. Erreprodukzioak egin ondoren, gauza bera egin beharko du.

Debekatuta dago Zerbitzuko inprimagailu funtzioaniztuna erabil dezaten Zerbitzuari atxikita ez dauden langileek, eta aurreikusitako ordutegiez kanpo erabiltzea. Murrizketa hori adierazten duen kartel bat jarriko da".

Bigarrena. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egindako gomendioak eta prebentzio-neurriak onartzea. Gomendio eta neurri horiek eranskin gisa doaz.

Hirugarrena. Erabaki hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta indarraldi horrek Mahaiak zehazten duen arte iraunen du.

Laugarrena. Erabaki hau hurrengoei helaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

Bosgarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias

NAFARROAKO PARLAMENTUAN JARDUERA PRESENTZIALERA ITZULTZEARI BURUZ KONTINGENTZIA PLANA ALDATZEKO ERABAKIAREN ERANSKINA

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAK EGINDAKO GOMENDIOAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK.

1. Eraikineko gune ezberdinetarako sarbidearen murriztapenari dagokionez: beti errespetatu beharko da areto bakoitzerako ezarritako gehieneko edukiera, 2 metroko pertsonarteko distantzia ziurtatu ahal izateko. Gehieneko edukierak areto horien sarreran adierazi beharko dira.

2. Lan-bilerak, oro har, audiokonferentzia edo bideokonferentzia bidez egiten dira, eta ahal den neurrian saihestuko dira bilera presentzialak.

Bilera presentzialki egiten den kasuetan, honako neurri hauek hartuko dira horretarako erabiltzen diren aretoei dagokienez:

- Aldez aurreko baimenarekin erabiliak izatearen aukera baloratzea, halako moldez non ziurtatuko baita esleitutako aretoak beharrezko edukiera izan dezan bertaratutakoek 2 metroko pertsonarteko distantzia mantendu ahal izateko.
- Areto bakoitzaren gehieneko edukiera seinaleztatu behar da sarrera baino lehen.
- Barruan, 2 metroko pertsonarteko distantzia ziurtatzeko zer postu okupatu behar diren seinaleztatzea. Ezin okupatuzkoak diren postuetako aulkiak kentzea.
- Bilera bat baino gehiago eginez gero, bileratik bilerarako denborartean aretoa garbitu eta desinfektatu egin beharko da.

3. Kafetegira sartzeko aukerari dagokionez, kanpoko enpresa bateko pertsona bakar batek emanen du zerbitzua. Nafarroak 2. fasean irauten duen bitartean, maiatzaren 16ko SND/414/2020 Aginduan ezarritakoa beteko da, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 2. fasea aplikatuz alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako nazio-mailako zenbait murrizketa malgutzeari begira (IV. kapitulua): Ostalaritzako eta jatetxeen establezimenduetan zerbitzua emateko baldintzak.

- Ibilbide bat ezartzea gune jakin batzuetan pilaketak saihesteko eta bezeroen arteko kontaktua prebenitzeko; horretarako, ateetako bat sarrera gisa izendatuko da, eta bestea irteera gisa.
- Sarrera aurretik seinaleztatzea ezarritako gehieneko edukiera (12 pertsona, zerbitzua ematen duen pertsonaz gain).
- Osasun Ministerioak baimenduak eta erregistratuak diren gel hidroalkoholiko edo desinfektatzaile biruziden isurgailuak erabiltzaileen eskura jartzea lokalaren sarreran.
- Mahaien artean bi metroko distantzia fisikoa mantentzen dela ziurtatu beharko da.

- Mahaian eserita bakarrik kontsumitzen ahalko da. Ez da inola ere onartuko bezeroa barran autozerbitzuaz baliatzea.
- Erabiltzaileak behartuta egonen dira zerbitzua ematen duen pertsonak adierazten dien mahaia okupatzera.
- Mahaian zerbitzua ematen duten langileek bezeroarekiko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute, eta kutsatze-arriskua saihesteko beharrezkoak diren higiene- eta prebentzio-prozedurak aplikatu.
- Zerbitzatzen diren mahaian eskatu eta ordainduko dira janari-edariak, eta horretarako ez dira barrara hurbilduko.
- Bezero baten eta ondorengoaren artean, mahaia, aulkiak eta beste edozein ukipen-azalera garbitu eta desinfektatu beharko dira.
- Lokala gutxienez egunean behin garbitu eta desinfektatu beharko da.

4. Hedabideen presentzia fisikoarekin egindako prentsaurrekoei dagokienez, erabili ondoren materiala garbitzea gomendatzen da.

5. COVID-19a dela-eta kalteberak diren langileei aplikatzekoak zaizkien babesneurriei dagokienez: Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraziko zaio zein diren kolektibo kalteberetako kide izan eta lan presentzialera itzuli nahi duten langileak, SARS-Cov-2-aren esposizioa dela-eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuentzat dagoen 2020ko maiatzaren 22ko Jarduketa Protokoloari jarraituz baloratuak izateko.

6. Parlamentuko Liburutegian eta Artxiboan salbuespenez presentzialki kontsultatutako materialari dagokionez, Kultura eta Kirol Ministerioak dokumentu eta material erabilien berrogeialdiei buruz emandako gomendioak kontuan hartu beharko dira:

- 14 egun liburutegietako materialetarako.
- 10 egun artxiboetako dokumentu eta material guztietarako

Nolanahi ere, Osasun Ministerioak eta NOPLOIk ezarritakoak eta une bakoitzean aplikatzekoak diren neurriak kontuan hartuko dira, egoera epidemiologikoaren eta normaltasun berri baterako trantsizio-planeko faseen arabera.